

Oiartzuar gaztea:

Oiartzuarra izanik, bertan ikasi zenuenean parte hartu zenuelako, lagunartean aipatu izan duzelako edo besterik gabe, prentsan irakurri izan duzulako, ezaguna egingo zaizu Oiartzungo Udalak antolatzen duen **Prosa eta poesia lehiaketa**. Dakizun bezala, Oiartzungo ia ikasle guztiek parte hartzen dute lehiaketa honetan, eta gabonak aldera egiten den ekitaldi batean, saria jasotzen dute irabazleek.

Helburua euskarazko literaturaz gozatzeko ohitura hartzea da: euskaraz irakurtzeko eta idazteko zaletasuna sustatzea. Helburu horretan zu ere lagun izatea espero dugu.

Izan ere, herriko ikastetxeen elkarlanari esker, 16 urte bitarteko oiartzuar guztien parte hartzea ziurtatua dugu Oiartzunen. Eta orain, zuk **16 urtetik 18ra** bitartean zure ikasketak Oiartzundik kanpora egiten badituzu ere, Prosa eta poesia lehiaketa honetan interesa eduki dezakezula pentsatzen dut. Hortaz, **parte hartzera animatu nahi zaitut**, Euskara Batzordearen izenean.

120 euroko 2 sari zain dituzu, nahiz prosa, nahiz poesia atalean. Gogoratu zure lanak udaletxeko harreran edo Euskara Zerbitzuan entregatu behar dituzula eta **epea azaroaren 3an** bukatuko dela (12:00). Gutun honekin batera bidaltzen dizkizut aurtengo onartu ditugun **XXIX. Prosa eta poesia lehiaketaren oinarriak**.

Animo eta zorte on!

Oiartzunen, 2016ko irailaren 15ean



Ioritz Aizpuru Lopez
Euskara Batzordeburua